

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Otsailaren 15etik 19ra 2016/17 ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikula egingo da

Mendoza kontseilariak deialdia aurkeztu du, eta haren berrikuntza nagusia euskalduna ez den zonaldean euskarazko irakaskuntzako D eredu hautatzeko aukera da

Lunes, 01 de febrero de 2016

Otsailaren 15etik 19ra zabalik izango da 2016-2017 ikasturterako aurrematrikula-epaia Haur Hezkuntzan (3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzan (6-12 urte); lehen aldiz hezkuntza-sisteman sar daitezkeen 3 urteko 6.000 haur nafarrentzat da, bereziki.

Hezkuntzako kontseilari Jose Luis Mendozak datorren ikasturterako berrikuntzak iragarri ditu, Hezkuntzako eta Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusi Estebe Petrozan eta Juan Ramon Elorz-ekin batera.

Sare publikoko hezkuntza-eskaintza zabala ezagutarazteko, Nafarroako Gobernuak sustapen kanpainari ekin dio gaur, honako goiburu honekin: "Publikoa aukeratu: kalitatezko hezkuntza".

Datorren ikasturteko berrikuntza nagusia D ereduko lerroak euskalduna ez den zonaldean irekitzea da, hau da, euskarazko irakaskuntza gaztelania ikasgai moduan izanik, eta eredu hori hiru urteko haurrek hautatu ahalko dute ere, Foru Komunitateko gainerako tokietan bezala.

Eskolatzeko-kanpaina

Eskolatzeko-kanpaina gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten ari diren 60.789 ikasleen familiei begira prestatu da, baina



Ahora es el momento de elegir una educación con arraigo, sólida, de calidad, con prestigio, cercanía y multilingüe.

Elige la pública
Una educación de calidad

Del 15 al 19 de febrero
Preinscripción para
Educación Infantil y Primaria
¡Que no se te pase!

Aukeratu publikoa
Kalitatezko hezkuntza

Orain da unea hezkuntza aukeratzeko: ongi errotua, sendoa, kalitatekoa, prestigiduna, hurbilekoa eta hizkuntza anitzekoa.

Izara arratsko epia, Haur eta Lehen Hezkuntzarako:
Otsailaren 15etik 19ra
Ez ahaztu!

Informata / Información:
848 42 69 77 - 848 42 66 17
www.preinscripcion.navarra.es

Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

"Publikoa aukeratu: kalitatezko hezkuntza".

bereziki 2013an jaiotako eta lehen aldiz matrikulatuko diren 6.000 haur baino gehiagori begira.

Aurrematrikula beren seme-alabak lehen aldiz eskolatuko dituzten familiek bakarrik egin ahalko dute, ikastetxe publiko batean edo itunpeko batean, edo beren seme-alabak ikastetxez aldatzea nahi dutenek. Ez da beharrezkoa inolako onarpen-prozedurarik ikastetxe berean jarraitzen duten ikasleen kasuan edo esleipenagatik beste batera joan behar dutenen kasuan.

Familiek gehienez hiru aukera jarri beharko dituzte, eta inprimakiak lehen aukera gisa eskatutako ikastetxean aurkeztu beharko dituzte, otsailaren 15etik 19ra.

Epe eta dokumentazioari buruzko informazio guztia navarra.es helbidean dagoen ondorengo [webgunean](#) topa daiteke

D eredia euskalduna ez den zonaldera zabaltzea

Aipatu den moduan, 2016-2017 hurrengo ikasturtetik aurrera, Nafarroan bizi diren 3 urteko haur guztiak D eredian eskolatu ahalko dira sare publikoko ikastetxeetan, hau da, euskarazko irakaskuntza gaztelania ikasgai moduan izanik. Aukera hori gainerako adinetara zabalduko da pixkanaka datozen ikasturteetan; hala, taldeen sorrera bermatuko da derrigorrezko hezkuntzako maila guztietan, Hezkuntza Departamentuaren etengabeko ikuskaritzapean.

Berrikuntza otsailaren 24ko 4/2015 Foru Legearen ondorioa da, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen, Euskarari buruzkoaren, 26. artikulua aldatu zuena, zonalde [ez euskaldunean D](#) ereduaren eskaintza ahalbidetuz.

Aurrematrikula-eskaera formalizatzeko, datuak bete eta "D Eredua" laukitxoa adierazi baino ez da egin behar aurrematrikulako inprimakian; inprimakia Nafarroako ikastetxe publiko guztietan eskuratu ahalko da. Eskaera Nafarroako edozein ikastetxe publikorako egin ahalko da, nahiz eta ikastetxeak gaur egun D eredurik ez izan.

Hezkuntza Departamentuak eskolatzeari buruzko arreta eredu horretan emango du, ondorengo irizpideak betez:

- D ereduko lerro berriak gutxienez 8 ikaslerekin irekiko dira orokorrean.
- Gutxienerako zifra horretara heltzen ez den kasuetan, taldeak osatuko dira geografia-hurbiltasunari erreparatuz, eta Hezkuntza Departamentuak lerro berria ezartzeko ikastetxe egokiena hautatuko du.
- Beste udalerrri batzuetatik joan behar duten ikasleek garraio eta jangela zerbitzuak izango dituzte hautatuko eredian beren eskolatzeari bermatzeko.
- Hezkuntza Departamentuak ikasturte bakoitzean eskaintzaren jarraipena eta egokitzapena egingo du D ereduko beren derrigorrezko eskolatzeari hasten duten ikasleek Haur eta Lehen Hezkuntza eredu horretan egin ahal dezaten.

Ikasle-ratioaren eta onarpenari buruzko araudiaren berrikuspena

Mendoza kontseilariak aurreratu duenez, 2016/2017 ikasturtean egungo sistemaren beste elementu batzuk berrikusiko dira, esaterako: ikasgela bakoitzeko ikasleen gehienerako kopurua edo onarpenari buruzko araudia.

Lehen gaiari dagokionez, Hezkuntza Departamentuak apirilaren 20ko 14/2013 Errege Dekretuaren aurreko parametroetara itzuli nahi du, kopuru hori handitu zuena. Horrekin, Lehen Hezkuntzan, egungo 30etik 25era jaitsiko zen (Nafarroan ez dira 27 gainditu); Bigarren Hezkuntzan, berriz, 32tik 30era jaitsiko zen, eta Batxilergoan, 33an geratuko zen.

Onarpena arautzen duen araudiari dagokionez, 2016/17 ikasturtea egungo irizpideekin hasiko da. Hezkuntzak ikastetxeetako eragin-guneak berrikusteko prozesua hasi du, ikaslea bere ingurunearen eskolatzeko xedea lehenetsiz; gainera, jatorri, sexu, gaitasun edo beste egoera familiar edo pertsonalengatik sor daitezkeen diskriminazio-egoerak saihesten ahaleginduko da. Aldaketak 2017/18

ikasturtetik aurrera egingo dira.